


itzulpena:

Ander Leal Negro
Izaro Artetxe San Antón
Igone Aldalur Ariztondo

A detailed illustration of two men in a train car. On the left, a man with a beard and glasses, wearing a patterned jacket, sits in a train seat and gestures with his right hand while looking towards the other man. On the right, a man wearing a bowler hat and a dark jacket sits facing him. They are positioned in front of a large window that looks out onto a landscape with hills. The illustration is signed 'J.F.O.' in the bottom right corner.

Copper Beecheseko abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Copper Beecheseko abentura

itzulpena:

Ander Leal Negro

Izaro Artetxe San Antón

Igone Aldalur Ariztondo

—Artea berez maite duen gizonak —ohartarazi zuen Sherlock Holmesek, *Daily Telegraphen* iragarki orria alde batera botaz— maiz garrantzia eta apaltasun gutxien duten adierazpenetan plazer handiena lortzen du. Atsegin dut ikustea, Watson, egia hau hain ondo ulertu duzula, ezen gure kasuen inguruan idatzi dituzun kontakizun txiki hauetan, idazteko adeitasuna izan duzun. Eta, aitortu behar dut, noizbehinka apaindu ere egin dituzunetan, ez duzula hainbeste nabarmendu nire parte-hartzea izan duten kausa ospetsuak eta epaiketa ikusgarriak; baizik eta, berez hutsalak izan arren, niretzat dedukzio eta sintesi logikoaren ariketa bihurtu diren gertaerak.

—Eta, hala ere —esan nuen, irribarretsu—, ezin dut guztiz nire burua barkatuta ikusi, nire agiriaren aurka egin den akusazioa sentsazionalistagatik.

—Akats egin duzu, agian —behatu zuen, suhatzekin ikatz distiratsu bat hartu eta horrekin gerezi zurarekin egindako pipa luzea piztuz, buztinezkoa alde batera uzten baitzuen gogoeta egiteko baino eztabaidatzeko aldarlean zegoenean—, akats egin duzu agian, zure adierazpen bakoitzari kolorea eta bizia jartzen saiatzean, zentzuzko arrazoibide zorrotz hori erregistratzera mugatu orde; izan ere, benetan aipagarri den gauza bakarra hori baita.

—Nire iritziz, gai honetan justizia osoa egin dizut —esan nuen hotz apur batekin. Izan ere, uxatu ninduen nire lagunaren izaera berezian faktore indartsu bat den eta behin baino gehaigotan ageriko den egotismoak.

—Ez, ez da burugabekeria edo harropuzkeria —esan zuen, ohikoa den bezala, nire hitzak baino, nire pentsamenduak erantzunez—. Nire artearentzako justizia osoa eskatzen badut, pertsonarik gabeko zerbait delako izangolitzateke, nire baitatikharatago doan zerbait. Delitua ohikoa da. Logika, ez. Hortaz, krimenean baino gehiago, logikan jarri beharko zenuke arreta. Irakaspen sorta izan beharko zena ipuin sail bilakatu duzu.

Udaberri hasierako goiz hotz bat zen, eta gosaldur ondoren, Baker Streeteko gela zaharreko su atseginaren bi aldeetan eseri ginen. Etxe marroixken ilaren artean laino lodi bat etorri zen, eta aurkako leihoetan itzal ilun eta forma gabeko orbanen gisa ageri ziren kiribil horixketatik. Gas-argia piztuta zegoen eta mahai-zapi zuriaren gainean eta portzelanaren zein metalaren distiran egiten zuen dirdira; izan ere, mahaia oraindik ez zegoen jasota. Sherlock Holmes goizean zehar isilik egon zen, etengabe hainbat iragarkien zutabeetan murgilduta, harik eta, azkenean, bilaketa etsitzat eman zuela zirudielarik, ez oso aldarte onean agertu eta nire gabezia literarioei buruzko sermoia ematen hasi zitzaidan arte.

—Aldi berean —esan zuen etenaldi baten ondoren. Tarte horretan bere pipa luzea keztatu eta sutara begira egon zen—, zaila litzateke zu sentsazionalismoaz akusatzea, bada hain arretaz jorratu dituzun kasu horien artean, zati aipagarri batek ez du krimena, bere zentzu juridikoan behintzat, batere lantzen. Bohemiako erregeari laguntzen saiatu nintzen gai txikia, Mary Sutherland andereñoaren esperientzia bitxia, ezpain okertuko gizonarekin lotutako arazoa, eta noble ezkongabearekin izan zen gertakariaren kasua; guztiak legearen eremuaren kanpoko gaiak ziren. Baina sentsazionalismoa saihestuz, beldur naiz arrunta

izatera heldu zarela.

—Amaiera hala izan daiteke —erantzun nuen—, baina, nire ustez, metodoak berritzaileak eta interesgarriak izan ziren.

—Buff... lagun maitea, zer axola dio jendeari, jende handi baina ez-oharkorrari, ia ehule bat hortzaren arabera edo inprentaria ezkerreko hatz lodiaren arabera bereizteko gai ez denari, analisi eta dedukzioaren ñabardura finak! Baina, egia da, arrunta bazara, ezin dizut errua bota, kasu handien egunak atzean geratu dira eta. Gizakiak, edo gutxienez gizaki kriminalak, ekimen eta jatorrizkotasun guztia galdu du. Nire praktika txikiari dagokionez, itxura denez, bihurtzen ari da arkatz galduen bilketarako agentzia eta internatuetoako neska gazteei aholkua emateko zerbitzua. Pentsatzen dut, azkenean, behea jo dudala, hala ere. Gaur goizean izan dudana ohar honek, uste dut, nire zero-puntua markatzen du. Irakurri ezazu! —Eskutitz zimurtu bat bota zidan.

Montague Plazatik aurreko arratsaldean idatzita zegoen, eta honela zioen: Holmes Jaun maitea :

Gobernatzaile gisa eskaintzen zaidan egoera onartu beharko nukeen edo ez jakiteko zure iritzia eskatzeko oso irrikaz nago. Bihar hamarrak eta erdiak aldera deituko zaitut, ez badizut eragozpenik sortzen.

— Adeitasunez, Violet Hunter.

—Ezagutzen al duzu andre gaztea? —galdetu nuen.

—Nik ez.

—Orain hamarrak eta erdi dira.

—Bai, eta ez dut inolako zalantzarik hori bera dela.

—Agian pentsatzen duzun baino interesgarriagoa izan daiteke. Gogoratzen duzu auto urdinaren istorioa, hasieran kapritxo bat zirudiena, ikerketa serio baten bihurtu zela. Kasu honetan ere izan daiteke horrela.

—Ados, espero dezagun. Baina gure zalantzak laster argituko dira, hemen, erratuta ez banago, dago bera eta.

Berba egiten ari zela, atea ireki eta emakume gazte bat sartu zen gelan. Modu sinplean baina txukun jantzita zegoen, aurpegi argi eta bizkorra zuen, pekatsua txirri baten arrautzaren antzekoa, munduan bere bidea egin duen emakume baten bizitasunarekin.



—Barkatuko didazu eragozpenak sortzeagatik, ziur nago —esan zuen berak, nire laguna hura agurtzera altxatu zenean—, baina esperientzia oso bitxi bat izan dut, eta ez daukadanez gurasorik edo seniderik zeini aholku eskatzeko, pentsatu dut, agian, nahiko adeitsu izango zinatekeela zer egin behar dudan esateko.

—Mesedez, eseri zaitez, Hunter andereñoa. Pozik egingo dut nire esku dagoen guztia zuri laguntzeko.

Ikus nezakeen Holmesek begi onez hartu zuela bere bezero berriaren jarrera eta hizkera. Arretaz behatu zuen bere begirada aztertzailearekin, eta ondoren lasaitu zen, betazalak erdi itxita eta hatz puntak elkar ukituz, haren istorioa entzuteko prest.

—Bost urtez gobernanta izan naiz —esan zuen berak— Colonel Spence Munroren familian, baina duela bi hilabete koronelak lanpostu bat lortuzuen Halifaxen, Eskozia Berrian, eta bere seme-alabak berarekin eraman zituen Ameriketara; hortaz, ni lanik gabe geratu nintzen. Iragarkiak jarri nituen, eta iragarkiak erantzun nituen, baina arrakastarik gabe. Azkenik, aurreztu nuen diru apurra agortzen hasi zen, eta zer egin behar nuen ez nekien.

»West Enden Westaway's izeneko gobernantza agentzia ezaguna dago, eta hara astero behin deitzen nuen, ea niretzat egokitzen zen zerbait agertu zen jakiteko. Westaway enpresaren sortzailearen izena zen, baina benetan Stoper andereñoak kudeatzen du. Bere bulego txikian eserita dago, eta lan bila dabiltzan emakumeek aurreko gelan itxaroten dute. Gero banan-banan sartzen dira, berak bere liburuak kontsultatzen ditu eta ikusten du ea haientzat egokitzen den ezer duen.

»Tira, joan den astean deitu nuenean, ohiko moduan bulego txikira eraman ninduten, baina Stoper andereñoa ez zegoen bakarrik. Gizon izugarri lodia, aurpegi irribarretsu batekin

eta kokots astun handikoa, tolestura bat bestearen gainean erortzen zitzaiona lepoan behera, emakumearen ondoan eserita zegoen, betaurrekoak sudurrean zituela. Sartu ziren andereei arreta handiz begira ari zen. Sartu nintzenean, bere aulkian a zer salto egin zuen eta azkar Stoper anderearengana biratu zen .

»—Hori nahikoa izango da —esan zuen—; ezin nezake ezer hobe eskatu. Kapitala! kapitala! —Itxaropentsu zirudien eta eskuak elkarrekin igurtzi zituen modu jatorrenean. Itxura lasaiko gizona zirudien eta, beraz, atsegina zen berari begiratzea.



»—Lan bila zaude, anderea? —galdetu zuen.

»—Bai, jauna.

»—Ume eta etxe zaindari gisa?'

»—Bai, jauna.

»—Eta zenbateko soldata eskatzen duzu?

»—Azken lekuan, Colonel Spence Munroekin, 4 libera hilabetean kobratzen nituen.

»—O, hara, hara! Izerditan, erabat izerditan! —oihukatu zuen, bere esku lodiak airean botaz, gogobiziko gizon baten moduan—. Nola izan daiteke inork horrelako diru kopuru murrizta eskaintzea halako erakargarritasun eta lorpenak dituen andre bati?'

»—Nire lorpenak, jauna, irudikatzen duzun baino gutxiago izan daitezke —esan nuen—. Frantses apur bat, aleman apur bat, musika eta marrazketa.

»—Hara, hara! —oihukatu zuen—. Honek ez du zerikusirik gai nagusiarekin. Gakoa da, baduzu ala ez dama baten jarrera eta portaera? Hori da, laburbilduta. Ez baduzu, ez zara egokia herrialdearen etorkizunean rol garrantzitsua izan dezakeen haur bat hazteko. Baina baldin baduzu, orduan, nola liteke jaun batek hiru zifraren azpiko ezer onartzera makurtzea eskatu izana? Zure soldata nirekin, anderea, hasiko litzateke 100 libera urtean izaten.

»Pentsa dezakezu, Holmes jauna, niri, behartsua, eskaintza hori egia izateko oso ona iruditu zitzaidala. Hala ere, gizonak agian nire aurpegian sinesgaiztasun itxura ikusita, poltsiko-liburu bat ireki eta billete bat atera zuen.

»—Nire ohitura ere bada —esan zuen, irribarre eginez, aurpegiko zimur zuri artean begiak bi zulo distiratsu bihurtu arte—, nire neska gazteei haien soldata erdia aurreratzea, haien bidaia eta arropa gastu txikiak ordaintzeko.

»Itxuraz, inoiz ez nuen horren liluragarria eta pentsakorra zen gizon batekin topo egin. Nire merkatariekin zorretan nengoenez, aurreordainketa sekulako erraztasuna izan zen eta, hala ere, transakzio osoan ohiz kanpoko zerbait zegoen, eta horrek gehiago jakin nahi izatea eragin zidan, nire burua guztiz konprometitu aurretik.

»—Non bizi zara, jauna? —esan nion.

»—Hampshire. Landa leku xarmagarria. Copper Beechesen, Winchesterreko beste aldean zortzi kilometrotara. Eremu ederrena da, ene andere gazte maitea, eta antzineko etxe dotoreenetakoa.

»—Eta nire betebeharrak, jauna? Eskertuko nuke jakitea zeintzuk izango liratekeen.

»—Haur bat, beti jolasean dabilen sei urteko txiki kutun bat. O, ikusi bazenezake nola hiltzen dituen labezomorroak zapatila batekin! Plaf! Plaf! Plaf! Hirurak desagertuta begia kliskatu orduko!
—Aulkian atzera bota zen eta barre-algara egin zuen, begiak ia buruan berriz sartzeraino.

»Haurraren dibertimenduaren izaerak pixka bat harritu ninduen, baina aita barre egiten zuenez, agian txantxetan ari zela pentsatu nuen.

»—Nire betebehar bakarrak, beraz —galdetu nuen—, haur bakar baten ardura hartzea dira?

»—Ez, ez, ez da hori soilik, ez da hori soilik, ene gazte andere hori —oihukatu zuen—. Zure betebeharra izango litzateke, ziur nago zure zentzumen onak iradokitzen duen bezala, nire emazteak emandako agindutxoak betetzea, betiere emakume batek egokiro bete ditzakeen aginduak badira. Ez duzu zailtasunik ikusten, eh?

»—Pozik egon beharko nintzateke nire burua erabilgarria izateagatik.

»—Bai, hala da. Janzkerari dagokionez, adibidez. Modari jarraitzen dioten pertsonak gara, badakizu, modan baina bihotz onekoak. Emango genizukeen edozein jantzi eramatea

eskatuko bagenu, ez zenuke gure gutizia txikiaren aurka egingo. Eh?

»—Ez —esan nion, bere hitzekin oso harrituta.

»—Hemen eserita egotea, edo han eserita egotea, ez litzaizuke iraingarria irudituko?

»—Oh, ez.

»—Edo zure ilea labur-labur moztea gure etxera etorri aurretik?

»Ezin nuen sinistu. Ikusi dezakezun bezala, Holmes jauna, nire ilea nolabait luxuzkoa da, eta gaztaina-kolore bereziko. Artetzat hartu izan da. Ezin nuen onartu ere egin horrela, arinkeria, sakrifikatzea.

»—Hori tamalez guztiz ezinezkoa da —esan nuen.

»Bere begi txikiekin adi-adi begiratzen ari zitzaidan, eta nik hitz egitean, nabaritu nuen itzal bat igaro zela haren aurpegitik.

"—Nahiko funtsezkoa da, zoritxarrez —esan zuen—. Nire emaztearen gutizia txiki bat da, eta andereen gutiziak, badakizu, andereen gutiziak aintzat hartu behar dira, andrea. Beraz, ez duzu ilea moztuko?

»—Ez, jauna, benetan ezingo nuke —erantzun nion irmoki.

»—Ah, oso ondo; orduan, horrek guztiz konpondu du gaia. Pena da, beste alderdi batzuetan benetan oso ondo egingo baitzenuke. Kasu horretan, Stoper andereñoa, onena izango da zure beste andre gazte batzuk ikustea.

»Kudeatzailea denbora guztian bere paperetan lanpetuta egon zen, ez zigun ezta hitz bat ere egin inori, baina orduan ni begiratu ninduen, hainbesteko sumindura aurpegian, non ez nuen laguntzarik izan susmatzeko nire ukatzeagatik irabaziko zuen komisio eder bat galdu zuela.

»—Zure izena liburuetan mantentzea nahi al duzu? —galdetu zuen.

»—Mesedez, Stoper andereñoa.»

»—Beno, benetan, itxura du ez zarela oso erabilgarria, modu honetan eskaintza bikainak ukatzen dituzu eta —esan zuen hark, zorrotz—. Ezingo duzu espero guk ahalegin berezia egitea zuretzat beste aukera bat aurkitzeko. Ondo izan, Hunter andereñoa. —Mahai gainean zegoen tam-tam bat jo zuen, eta morroi gazteak kanpora lagundu zidan.

»Ba, Holmes jauna, nire etxebizitzara itzuli nintzenean eta sukaldeko armairua nahiko hutsik aurkitzean eta mahai gainean bi edo hiru faktura zeudela ikustean, nire buruari hasi nintzaion galdezka ea ergelkeririk egin ote nuen. Azken finean, jende horiek funtzionario arraroak izan bazituzten eta gai bitxienengatik obeditzea espero bazuten, behintzat, euren xelebrekeria ordaintzeko prest zeuden. Ingalaterran oso gobernanta gutxik irabazten dute 100 libera urtean. Bestalde, zer erabilera zuen nire ileak niretzat? Jende askok motz dutenean

hobeto ikusten dira eta agian ni ere haien artean egon nintzakeen. Hurrengo egunean akats bat egin nuela uste nuen eta hurrenekoan horretaz ziur nengoen. Ia nire harrotasuna gainditu nuen agentziara itzultzeko eta lekua oraindik irekita zegoen galdetzeko, jaunak berak idatzitako gutun hau jaso nuenean. Hemen daukat eta irakurriko dizut.

»The Copper Beeches', Winchester inguruan.

»Hunter andereño maitea:

»Stoper andereñoak adeitasunez eman dit zure helbidea, eta hemen idazten dizut zure erabakia birpentsatu duzun galdetzeko. Nire emaztea zu etortzeko oso irrikaz dago, nik egindako deskribapenak asko erakarri baitu. 30 libera hiruhileko emateko prest gaude, edo 120 libera urteko, gure moda txikiek eragindako edozein deserosotasunengatik konpentsatzeko. Ez dira oso zorrotzak, azkenean. "Nire emaztea urdin elektriko tonu jakin batez maiteminduta dago, eta zuk goizetan etxe barruan halako soinekoa janzteah nahiko luke." Hala ere, ez diozu bat erosteko gastuari aurre egin behar. Izan ere, nire alaba miatearen, Aliceren, (orain Filadelfian dago) bat dugu eta hori uste dut oso ondo geldituko zaizula.

Horrez gain, hemen edo han eserita egoteak, edo adierazitako edozein modutan dibertitzeak, ez dizu inolako eragozpenik ekarri beharko. Zure ileari dagokionez, zalantzarik gabe pena da, batez ere gure elkarriketa laburrean bere edertasuna nabarmentzea ezin izan nuelako, baina puntu honetan irmo mantendu beharko naizela uste dut, eta espero dut soldata igotzeak galera horren ordaina emango dizula. Haurrari dagokionez, zure betebeharrak oso arinak dira. Etortzen saia zaitez, mesedez, eta nik zaldi karrozarekin itxarongo zaitut Winchesteren. Eman iezadazu zure trenaren berri.

»Adeitasunez, Jephro Rucastle.

»Hori da jaso berri dudana gutuna, Holmes jauna, eta onartuko dudala erabaki dut. Hala ere, azken pausoa eman aurretik, pentsatu nuen gai osoa aurkeztu nahi nizula zure iritzia ezagutzeko .

—Ea, Hunter andereñoa, zure buruak erabakita badu, arazo hori konponduta dago

—esan zuen Holmesek, irribarretsu.

—Baina ez zenidake ukatzeko aholkatuko?

—Onartu behar dut ez litzaidakeela gustatuko nire arrebaren batek eskatzea horrelako lanpostua.

—Zer esan nahi du horrek, Holmes jauna?

—Ah, ez dut daturik. Ez dakit. Agian zuk iritzirik al duzu?

—Ba, iruditzen zait irtenbide posible bakarra dagoela. Rucastle jauna oso gizon atsegina dirudi, adeitsu. Ez al da posible bere emaztea eroa izatea, eta gaia sekretu mantendu nahi izatea emakumea eroetxe batera ez eramateko, eta bere apeta guztiak onartzea, agerraldirik saihesteko?

—Hori arrazoi posible bat da; egia esan, egoera horretan, hori da seguruenik probableena. Baina, hala ere, ez dirudi neska gazte batentzat etxe atsegina denik.

—Baina dirua, Holmes jauna, dirua!

—Bai, noski, soldata ona da; lar ona. Horrek urduritzen nau. Zergatik eman beharko lizukete 120 libera urtean, 40 liberen truke nahi zuten hautagaia har zezaketenean? Horren atzean pisuzko arrazoi bat egon behar du.

—Pentsatu nuen egoeraren berri emanez gero, ostera zure laguntza behar izatekotan, ulertuko zenukeela. Askoz indartsuago sentituko nintzateke zure onespena izango banu.

—Oh, sentsazio hori zurekin eraman dezakezu. Ziurtatzen dizut, antza, zure arazo txikia azken hilabeteetan izan dudan interesgarriena izango dela. Badira zenbait ezaugarri guztiz berritzaileak. Zalantzetan edo arriskuan aurkituko bazina...

—Arriskua! Zer arrisku aurreikusten duzu? Holmes burua astindu zuen larriki.

—Arriskua desagertuko litzateke zehaztu ahal izango bagenu —esan zuen—, baina edozein unetan, egunez zein gauez, telegrama bat nahikoa litzateke zuri laguntzera joateko.

—Hori nahikoa da. —Bere aulkian azkar altxatu zen, bere aurpegitik kezka guztia desagertu zelarik—. Orain, lasaiago joango naiz Hampshirerera. Rucastle jaunari idatziko diot berehala, nire ile gizajoa sakrifikatuko dut gauean, eta bihar Winchesterera abiatuko naiz. — Holmesi esker oneko hitz batzuk esan ondoren, biok agurtu gintuen gabon esanez eta segituan alde egin zuen bere bidean.

—Gutxienez —esan nuen, eskailerak jaitsi ahala bere pauso azkarrak eta sendoak entzuten genituela—, bere burua ondo zaintzeko gai den emakume gazte bat dirudi.

—Eta hala izan beharko luke —esan zuen Holmesek serio—. Oker egongo nintzateke egun asko igaro aurretik haren berririk jasotzen ez badugu.

Ez oso luzean, nire lagunaren aurreikustea bete zen. Hamabost egun igaro ziren, eta tarte horretan nire burua haren inguruan pentsatzen askotan aurkitu nuen, emakume bakarti hura giza esperientziaren zein bazter bitxitan galduta zebilen galdetzen neure buruari. Soldata arraroa, baldintza bitxiak, betebeharrak, gauza guztiek ohiz kanpoko zerbait iradokitzen zuten; baina berritasun bat edo konspirazio bat zen, edo gizona filantropo bat edo gaiztoa zen. Nire ahalmenetatik haratago zegoen hori zehaztea. Holmesi dagokionez, behin eta berriz ikusten nuen ordu erdiz eserita, bekainak ilunduta eta gauza guztietatik

urrunduta, baina nik gaia aipatzean, eskua astinduz baztertzen zuen.

—Datuak! datuak! datuak! —oihukatu zuen pazientzia galduta—. Ezin ditut adreiluak egin buztinik gabe. —Eta, hala ere, beti amaitzen zuen marmarka esanez bere arrebek inoiz ez luketela halako lanposturik onartuko.

Azkenik, telegrama jaso genuen gau baten, berandu, ni ohera joateko asmotan nengoenean eta Holmes bere ohiko gaueko ikerketa kimiko horietako bati ekiten ari zenean. Sarri gertatzen zitzaion, gau osoan erretorta eta proba-hodi baten gainera makurtzea eta, goizean, gosaltzera jaisten nintzenean, posizio berberean aurkitzea. Gutun-azal horia zabaldu zuen eta, mezua begiratu ondoren, niri bota zidan.

—Soilik begiratu trenak Bradshaw gidan —esan zuen, eta berriro bere ikerketa kimikoetara itzuli zen.

Dei laburra eta premiazkoa izan zen.

Mesedez, egon zaitezte Black Swan Hotelera, Winchesteren, biharko eguerdian. Etorri mesedez! Ez dakit zer egin.

— Hunter.

—Nirekin etorriko zara? —galdetu zidan Holmesek, begirada altxatuz.

—Nahiko nuke.

—Besterik gabe, bilatu ezazu, orduan.

—Bederatzi eta erdietan tren bat dago —esan nuen, nire Bradshaw gidari begiratu ostean—. Winchesterrera 11:30etan iritsiko da.

—Hori oso ondo datorkigu. Orduan, agian, hobe da azetonen analisisa atzeratzea, goizean ezin baino hobeto egon beharko gara eta.

Hurrengo egunean, hamabietan, hiriburu ingeles zaharrerako bidean geunden. Holmes goizeko egunkarietan murgilduta egon zen bidaia osoan, baina Hampshireko muga igaro ondoren, alde batera utzi eta paisaiatz gozatzen hasi zen. Udaberriko egun bikaina zen, zeru urdin argia, mendebaldetik ekialdera irristatzen ari ziren hodei txuri leun txikiz apaindua. Eguzkia distiratsu ageri zen, baina haize fresko bizi batek giroari freskotasun zoragarria ematen zion, giza-energia berpiztuz. Landa eremu osoan, Aldershot inguruko muino leunetaraino, baserrietako teilatu gorri eta gris txikiak ageri ziren hosto berde berrien artean, udaberriaren edertasuna nabarmenduz.

—Ez al dira berde-berdeak eta ederrak? —Baker Streeteko lainoetatik iritsi berri zen gizon baten grinarekin oihu egin nuen.

Baina Holmesek burua gogor astindu zuen.

—Ba al dakizu, Watson —esan zuen—, nire moduko burua izatearen

madarikazioetako bat dela dena nire gai bereziari lotuta ikusi behar izatea. Etxe sakabanatu hauek begiratzen dituzu, eta haien edertasunagatik txundituta zaude. Nik begiratzen ditut, eta nire burura etortzen den pentsamendu bakarra da haien isolamenduaren eta bertan delitua egiteko duten inpunitatearen irudia.

—Aizu, zer nolakoak! —oihu egin nuen—. Nork lotuko lituzke delitua eta etxe maitagarri hauek?

—Betidanik beldur jakin bat sorrarazi naute. Watson, nire esperientzian oinarrituta, sineskeri zuhurra dut Londreseko kale ilunen eta zitalenen artean ez dela bekatuaren erregistro beldurgarriagorik aurkitzen, irribarretsu eta eder ageri den landa-eremuak eskaintzen duenaren aldean.

—Izutzen nauzu!

—Baina arrazoia oso argia da. Hirian, iritzi publikoaren presioak legeak ezin duena lor dezake. Ez dago hain kale zitalik, non haur torturatu baten garrasiak edo mozkorti baten kolpearen hotsak auzokideen elkartasuna eta haserrea pizten ez dituen; orduan, justiziaren makineria hain hurbil dago, non kexa hitz bakar batek martxan jar dezakeen, eta krimenaren eta auzitegiaren artean urrats bakarra baino ez dagoen. Baina begiratu etxe bakarti hauek, bakoitza bere zelaietan, gehienbat legeez gutxi dakiten pobre eta ezjakintasun handiko jendez beteta. Pentsatu infernuko krudelkerien ekintzen inguruan, leku horietan urtean eta urtean jarraitu dezakeen ezkutuko gaiztakeriari, eta inor ez da jakitun. Ez nintzateke beldurtuko laguntza eskatu digun emakumea Winchesterrera bizitzera joan izan balitz. Benetako arriskua bost miliako landa-eremuak sortzen du. Hala ere, argi dago ez dagoela zuzenean berez mehatxatuta.



—Ez. Winchesterrera etor baliteke gurekin elkartzeko, ihes egin dezake.

—Bai, hala da. Askatasuna du.

—Zein izan daiteke arazoa, beraz? Ezin duzu azalpenik eman?

—Zazpi azalpen ezberdin asmatu ditut, bakoitzak ezagutzen ditugun datuak estaltzen ditu. Baina hauetatik zein den zuzena, ezin da besterik gabe zehaztu, itxuraz gure zain dugun informazio berriak zehaztuko baitu. Ados, katedralaren dorrea dago, eta laster Hunter andereñoak esateko duen guztia entzungo dugu.

Black Swan ostatu ezaguna da High Streeten, geltokitik gertu dago, eta han aurkitu genuen andre gaztea gure zain. Egongela bat hartu zuen, eta gure bazkaria mahai gainean zain zegoen.

—Pozten nau etorri izana —esan zuen serio—. Zuek biok oso onak zarete; baina egia esan, ez dakit zer egin behar dudan. Zure aholkua niretzat oso baliotsua izango da.

—Esan iezaguzu zer gertatu zaizun.

—Hori egingo dut, eta azkar ibili behar dut, Rucastle jaunak hiruretan itzultzeko agindu didalako. Gaur goizean hirira etortzeko baimena lortu dut, nahiz eta berak gutxi jakin arrazoiaren inguruan.

—Konta iezaguzu hasieratik. —Holmesek bere hanka luze eta meheak suaren norabidean luzatu zituen eta entzuteko prestatu zen.

—Lehenik eta behin, esan dezaket, oro har, Rucastle jaun-andreen aldetik ez dudala tratatu txarrik jaso. Hori esatea justua da haientzat. Baina, ezin ditut ulertu eta ez nago lasai.

—Zer ez duzu ulertzen?

—Haien jokabideen arrazoiak. Baina guztia kontatuko dizuet gertatu zen bezalaxe. Etorri nintzenean, Rucastle jauna hemen aurkitu ninduen eta bere zaldi karrozan Copper Beechesera eraman ninduen. Berak esan bezala, lekua zoragarria da, baina eraikina berez ez da ederra, etxe handi eta karratu bat baita, kareztatua, hezetasunak eta eguraldi txarrak orbanek eta arrastoz beteak. Basoak ditu inguruan, hiru aldetan, eta laugarrenetik, Southamptoneko errepide nagusira jaisten den zelai bat maldan behera. Errepidea aurreko atetik ehun metro ingurura kurbatzen da. Aurrealdeko lursail hori etxearena da, baina inguruko basoak Lord Southertonak dira. Sarrerako atearen aurrean dagoen kupre koloreko pago multzo batek eman dio izena lekuari.

»Nagusiak kotxez eraman ninduen, beti bezain atsegin, eta arratsalde hartan aurkeztu zizkidan emaztea eta haurra. Ez zegoen egirik, Holmes jauna, Baker Streeteko gelan probable iruditu zitzaigun hipotesian. Rucastle andrea ez da eroa. Isila, aurpegi zurbileko eta senarra baino gazteagoa iruditu zitzaidan, hogeita hamar urte baino gutxiagokoa, uste dut;

bere senarra, aldiz, berrogeita bost urte baino gutxiago ezin ditzake eduki. Haien elkarrizketatik ondorioztatu dut zazpi urte inguru daramatzatela ezkondua, gizona alarguna zela, eta bere lehen emaztearen seme-alaba bakarra Filadelfiara joan den neska dela. Rucastle jaunak esan zidan neskak haiek utzi zituela bere amaordearekiko gorrotoa zuelako. Alabak gutxienez hogeitaz urte izango zituen, erraz imajina dezaket bere egoera deserosoa izango zela aitaren emazte gaztearekin.

»Rucastle andrea iruditu zitzaidan kolore gabea, bai aurpegi baita adimenaren aldetik ere. Ez ninduen utzi ez inpresio onik ezta txarrik ere. Hutsala zen. Erraza ikusten da bere senarrari eta bere seme txikiari pasioz dedikatuta zegoela. Bere begi gris argiak etengabe mugitzen ziren alde batetik bestera, edozein beharrian txiki antzemateko eta ahal zen neurrian aurea hartzekoz. Gizona berarekin ere atsegin zena, bere modu zakar baina adeitsu hartan eta, oro har, zoriontsu ziruditen bikote gisa. Eta hala ere, emakume honek sekretu triste bat zuen. Askotan pentsamendu sakonetan galduta egoten zen, bere aurpegian itxura tristeena zuela. Behin baino gehiagotan aurkitu dut negarrez. Batzuetan pentsatu izan dut semearen izaerak kezkatzen zuela; izan ere, inoiz ez dut hainbeste mimatutako eta hain gaizto jokabideko izaki txikirik ezagutu. Txikia da bere adinerako, burua nahiko neurrigabe handia du.

«Bere bizitza osoa kasketa basatien eta egonaldi tristen artean, hara eta hona, igaro duela dirudi. Bere burua baino ahulagoa den edozein izakiri mintzea dirudi bere dibertimendu bakarra, eta talentu harrigarria erakusten du saguak, txori txikiak eta intsektuak harrapatzeko planak egitean. Baina ez nuke umeari buruz hitz egin nahi, Holmes jauna, eta, egia esan, nire istorioarekin zerikusi gutxi du.

—Pozten naiz xehetasun guztiez —esan zuen nire lagunak—, zure ustez garrantzitsuak izan ala ez.

—Garrantzitsua den ezer ez galtzen saiatuko naiz. Etxearekin lotutako gauza desatsegin bakarra, berehala iruditu zitzaidana, zerbitzarien itxura eta jarrera izan zen. Bi dira, gizon bat eta bere emaztea. Toller, horrela deitzen da, gizon zakar eta izaera txarrekoa da, ile grisa eta bibotea dituenak, eta edari usain iraunkorra duena. Birritan, haiekin nagoenetik, nahiko edanda egon da eta, hala ere, Rucastle jauna ez zen horretaz konturatu. Bere emaztea oso emakume altua eta indartsua da, aurpegi zakar batekin, Rucastle andrea bezain isila eta askoz ere gutxiago atsegin. Bikote oso atsegin gabeak dira, baina zorionez, denbora gehiena haurtzaindegian eta nire gelan pasatzen dut, biak eraikinaren izkinan elkarrekin daude.

»Bi egun igaro ziren Copper Beechesera iritsi nintzenetik eta nire bizitza oso lasaia izaten ari zen; hirugarren egunean, Rucastle andrea gosalduta ondoren jaitsi zen eta bere senarrari zerbait xuxurlatu zion.

«—Oh, bai —esan zuen gizonak, niri begira—, oso eskertuta gaude, Hunter anderea, gure kapritxoari jarraitu izana ilea mozteko. Ziurtatzen dizut zure itxura ez dela batere

